

Intxaurrondo

Aitor Navarro- (943-288919)

Jon Elizalde Ttak taldeko tronbojolea dugu. Intxaurrondo Zaharrea jai eta hazitako mutil hau musika ikasketak egiten ari da.

nola definituko zenuke zuen musika?

Ska egiten dugu, hori bai nahasketa batzuekin. Gure estiloa oso aspaldikoa da, 70-80 hamarkadetakoa hain zuzen ere: The Specials, Jimmy Cliff...

Zein asmo dituzue etorkizunerako?

Orain arte maketa eta diskoa kaleratu ditugu. Aurrera begira bigarren diskoa plazaratzea gustatuko litzazuke. Hala ere, ez dakigu hori noiz izango den. Kantu berriak egin behar ditugu.


Nola ikusten duzu Euskal Herriko musikagintza?

Euskal Herrian oso talde onak daude. Hala ere, asko oso errepikakorrek dira. Batere originalak ez direnak ere badira. Gaur egun, musika mota berri bat entzuten denean, handik gutxira mota horretako

Urko Menaiaren erakusketa

Hilaren 10ean, Intxaurrondoko kultur etxe berrian, Urko Menaiaren erakusketa estreinatuko da. Urkoren lanak figurazio eta abstrazioaren artean koka daitezke.

«Auzoan kultur egarri handia dago»



Jon Elizalderen ustez intxaurrondotarak musika asko entzuten dute.

« Beharrezkoa zen auzoan bi kultur etxe egotea »

ko hainbat talde ateratzen dira. Originaltasun falta nabarmena da. Euskal gazteria aldatzen ari dela uste dut.

Onerako ala txarrerako?

Gazteak aldatzen ari dira. Lehen aipatutako originaltasun eza nagusitzen ari da. Gazte askok ez dutela "Los 40 principales" entzuten diote. Hala ere, "Euskadi Gaztea" entzuten dute, eta nire ustez, gauza bera da.

Intxaurrondo Zaharreako talde bakarra al zarete?

Ez. Mugatik, Amoniako eta Fite taldeak ere hemengoak dira.

Beraz, Intxaurrondok musika arloan badu zer esanik.

Bai noski. Intxaurrondon musika asko entzuten da. Gainera, hemengo jendeak badaki musika zer den. Hemen asko hitz egiten da musikaz. Pixkanaka pixkanaka auzoa handitzen joan da eta kultur egarria ere handiagoa da.

Orain hilabete kultur etxe berria estreinatu zen. Zer iruditu zaizu?

Oso ondo dago. Beharrezkoa zen Intxaurrondok bi kultur etxe izatea. Kultur etxe berriak denetarik du: fonoteka, bideoteka, liburutegia... Haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat gauza ugari ditu. Behar beharrezkoa zen auzoan beste kultur etxe bat egotea.

Aurrera begira disko berria egin nahi dugu

Zer falta da auzoan?

Musika eskola. Oro har, musika ikasi nahi duenak Donostian jai dauka. Ikasketan on batzuk egiteko Madrilera edo Bartzelonara joan behar duzu.

Donostialdean Easo kaleko eta Pasaiaiko kontserbatorioak daude. Baita eskola pribatuak ere. Gainera, Donostiako Musika Eskola dago. Bertako irakasle batzuk onak dira. Baina tira, ez pentsa aparteko eskola denik.